

SARRERA

Gu Gorka Gabilondo, Ander Arenas, Mikel Txintxurreta eta Jon Arratibel gara eta MAKARROIAK taldea sortu dugu, Startinnovako proiektuan parte hartzeko. Urretxun dagoen ikastetxe bateko ikasleak gara, Urretxu-Zumarraga Ikastolako ikasleak, zehazki.

Onartu beharra dugu buruan biraka ideia asko izan genituela, baina asko hausnartu ondoren, momentu honetan gizarteak duen behar nagusietako bat asetzen duen proiektuarekin aurrera egitea erabaki genuen.



Urte batetik bestera, gure egunerokotasunean aldaketa ugari somatu ditugu Covid-a dela eta, esate baterako, musukoen derrigorrezko erabilpena, aforo murrizketa, Covid pasaporteak erakutsi eta soinean eduki beharra... Burua mila gauzetan eduki behar dugunez, zeini ez zaio behin baino gehiagotan gertatu, musukoa etxean utzi eta berandu konturatu izana? Horregatik, Goierri mailako establezimenduetan, hots, zinematan eta liburutegietan, hain zuzen ere, musuko makinak kokatzea pentsatu ditugu, eguneroko arazo honi konponbide bat emateko xedearekin.



Horretarako, beste enpresa eta erakundeekin harremanetan jarriko gara aliantzak egiteko, horrela, produktuak eskuratzeko, errazagoa izango zaigu, eta gainera, ordaintzerako garaian, askoz merkeagoak aterako zaizkigu makinak eta musukoak. Beraz, zenbait abantaila izango ditugu aliantzei esker. Bestalde, publizitatearen bitartez gure beste helburuetako bat lortuko dugu, hau da, jende artean gure izena ezagunagoa egitea.

Bukatzeko, aurrekontuari erreparatuko diogu, betiere jakinda, kontuz ibili behar garela, zorretan ez erortzeko, eta etorkizun batean, arrakasta izanez gero, aukera izateko herrialde gehiagotan gure zerbitzua eskaintzeko.